



*Kultura, Kirola, Gazteria eta Euskara
Cultura, Deporte, Juventud y Euskera*

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, 2026AN ZEHAR MUSKIZKO IKASTETXEETAKO GURASO ELKARTEEK IKASLEEKIN KULTUR ETA KIROL EGITASMO ZEIN EKINTZAK EGIN DITZATEN

1. XEDEA

Deialdia honen xedea urtean ikasleekin egindako kultur eta kirol egitasmo zein ekintzak antolatzeak dakartzan gastuei aurre egiteko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da.

Kontuan hartu behar da ez dela ikasturtea aintzat hartzen, urte naturala baizik (urtarrila-abendua).

2. AURREKONTUA

Hezkuntza Sailak 20.000 €-ko aurrekontua izango du horretarako.

3. ONURADUNAK

Muskizko Guraso Elkarteak, eta horrelako elkarerik ez balego edota eskaerarik egingo ez balute, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira dirulaguntza hauen onuradun, baldin eta ikasleei zuzendutako, kirol edo kultura ekintza edota egitarauak aurreikusten badituzte.

Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin edo Muskizko Udalarekin zorrak dituzten erakundeek eta/edo pertsonak egindako eskaerak berariaz baztertzen dira.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEENAK ETA BAZTERKETAK

Diruz lagundu daitezkeenak:

Eskatzaileak antolatutako **kultur edo kirol jarduerak** eragindako gastuak: materialak, hornidura eta kontratatutako zerbitzuak, publizitatea, bulegoa...

Bazterketak: Espresuki deialdi honetatik kanpo daude honakoak,

a) Bere izaera edo xedeagatik deialdi honi esleitutako jarduera eremuekin harreman zuzenik ez duten eskabideak.

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS Y ACTIVIDADES CULTURALES Y DEPORTIVAS CON EL ALUMNADO POR PARTE DE ASOCIACIONES DE MADRES Y PADRES DE ALUMNADO DE CENTROS DOCENTES DE MUSKIZ EN 2026

1. OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria regular las condiciones para la concesión de subvenciones destinadas a sufragar los gastos derivados de la organización de proyectos y actividades culturales y deportivas con el alumnado durante el año en curso. Haciendo hincapié en que no se subvenciona gasto durante el curso, sino durante el año natural, entre enero y diciembre.

2. PRESUPUESTO

El Departamento de Educación dispondrá de una partida presupuestaria de 20.000 € para este fin.

3. BENEFICIARIAS

Podrán optar a estas ayudas las AMPA de los Centros escolares de Muskiz y, en ausencia o no presentación de estas, los propios centros escolares de Educación Primaria y Secundaria, que proyecten realizar programas o actividades dirigidas a su alumnado.

Quedan expresamente excluidas las solicitudes de entidades y/o personas que tengan deudas pendientes con Hacienda, la Seguridad Social o el Ayuntamiento de Muskiz.

4. CONCEPTOS SUBVENCIONABLES Y EXCLUSIONES

Conceptos subvencionables:

*Los gastos generados por las **actividades culturales o deportivas** organizadas por la entidad solicitante: materiales, suministros y servicios contratados, publicidad, oficina, etc.*

Exclusiones: *Quedan excluidos expresamente de esta convocatoria de ayudas,*

a) *Cualquier programa o actividad que, aun siendo propio de una AMPA, por su naturaleza u objeto no guarde relación directa con la programación cultural o deportiva.*

- b) Dirulaguntza izenduna duten egitarauak eta Udal honetako beste laguntza batzuetan lotura egokiagoa edo zuzenagoa dutenak.
- c) Behar bezala adierazita ez dauden dietak, PFEZ atxikipenik, BEZik edo indarrean dagoen kontraturik (hala dagokionean) aurkezten ez duten hizlari, irakasle, laguntzaile eta gisa horretakoei egindako ordainketak.
- d) Janari gastuak. Salbuespena: janarietako gastuak ONARTUKO DIRA menu eta jardueretako janari guneen kasuan, jarduerak Muskizetik kanpo egotea eskatzen duenean; eta sardina-janak, txokolate-janak eta gisa horretako herri ekitaldien kasuan.
- e) Datu hauek argi adierazten ez dituzten fakturak: hornitzailea eta bere IFZ edo NAN, bezeroa (eskatzailea) eta bere IFZ edo NAN, kontzeptua, prezioa eta BEZa, hala behar denean.
- f) Eskolari dagozkion gastuak, nahiz eta fakturak GEaren izenean egon.
- g) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko konpromisoaren harira, Muskizko Udalak baztertu egingo ditu honako hauek dituzten eskabideak: "pertsonak sexuaren arabera gutxiago edo gehiago direla edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak, bai eta indarkeria eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen dutenak ere".
- b) *Los programas objeto de subvención nominativa y los que tengan inclusión más adecuada o expresa en otras convocatorias de este Ayuntamiento.*
- c) *Gastos por dietas que no estén debidamente declaradas, pagos a conferenciantes, profesores, colaboradores etc. que no presenten retención de IRPF, IVA o contrato en vigor (según proceda).*
- d) *Gastos de comidas. Sí se admiten facturas de comida en el caso de avituallamientos en actividades, menús cuando la actividad exija desplazarse o permanecer fuera de Muskiz, y actos populares como sardinadas, chocolatadas o similar.*
- e) *Cualquier tique o factura que no indique claramente los siguientes datos: proveedor y su NIF o DNI, cliente y su NIF o DNI, concepto, precio e IVA si procede.*
- f) *Gastos propios del centro escolar, aun cuando hayan sido pagadas por el AMPA.*
- g) *En su compromiso con la prevención de la violencia contra las mujeres, el Ayuntamiento de Muskiz excluirá las solicitudes que incluyan "imágenes y contenidos mediáticos que presenten a las personas como inferiores o superiores en función del sexo, o como meros objetos sexuales, así como los que justifiquen, banalicen o inciten a la violencia y, en particular, a la violencia contra las mujeres".*

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA BALDINTZAK

Eskariak, eskatutako dokumentazioarekin batera, Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira. Halaber, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira, Udalak horretarako dituen eskaera-orria betez.

Pertsona juridikoak behartuta daude administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten entitateek eskabideak aurkeztu beharko dituzte, deialdi honi atxikitako ereduari jarraiki, bertan zehaztutako datu eta dokumentuak helarazita.

Baldin eta aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarri hauek ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eskatzaileak hamar egun izango ditu dokumentazioa osatzeko edo okerrak

5. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las solicitudes, junto con toda la documentación, se deberán presentar en el SAC del Ayuntamiento de Muskiz o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

Las personas jurídicas están obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas para la realización de cualquier trámite de un procedimiento administrativo.

Las entidades que deseen optar a estas ayudas deberán presentar la solicitud según modelo adjunto a la presente convocatoria, aportando los datos y documentación que en ella se especifican.

Cuando se comprobara que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos por las presentes bases, se requerirá para que en un plazo de diez días se subsanen las faltas o

zuzentzeko. Epe horretan horrelakorik egiten ez badu, eskatzaileak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Nolanahi ere, egingo den jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalgo die eskatzaileei Udalak, aurkeztutako jarduera baloratze aldera.

Eskaerak aurkeztean, oso-osorik eta berariaz onartzen dira deialdi honetan eta Muskizko Udalak dirulaguntzak emateko Araudian adierazten diren baldintzak.

Muskizko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioak dituen parte hartzaileen datuak direla eta, datuok beharrezkoak direnean dirulaguntza honen izapidetze administratiborako. Horretarako, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa eta bestelako elkarreragingarritasun zerbitzuak erabiliko ditu.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa balitz elkarreragingarritasunera jotzea, Udalak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

6. EPEAK

2026ko urriaren 1etik 18ra.

7. EBALUAZIO ETA EMAKIDA IRIZPIDEAK

Pertsona edo elkarte eskatzaileek 100 punturainoko puntuaketa izan beharko dute, honako irizpideen arabera:

- a) Aurkeztutako egitarau edo ekintzaren aurrekontu osoa **55** punturaino
(1.500 € bakoitzeko, 5 puntu)
- b) Eskatzen den ziklorako ikastetxeak duen ikasle kopurua: **15** punturaino
(10 ikasleko, puntu 1)
- c) Eskatzen den ziklorako Muskizkoak diren ikasle kopurua: **15** punturaino
(10 ikasleko, puntu 1)
- d) Muskizko Udal Hezkuntza Sailak bereziki bultzatu nahi dituen egitasmo, kolektibo edo ekintzak sustatzeagatik, interes berezia duen programa dela iritzita: **15** punturaino

Beste irizpide batzuk:

- a) Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da aurkeztutako gastuen % 70 baino handiagoa izan.

acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se tendrá por desistida la petición.

En todo caso, además de la documentación relativa a la actividad contemplada, el ayuntamiento podrá requerir a los solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad presentada.

La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra y expresa de todas las condiciones contenidas en la presente convocatoria y en el Reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Muskiz.

El Ayuntamiento de Muskiz realizará las comprobaciones y consultas que estime oportunas respecto a los datos de las personas participantes en la Administración que sean necesarios para la tramitación administrativa de la presente subvención. Para ello utilizará el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia y otros servicios de interoperabilidad.

Cuando por razones técnicas no sea posible recurrir a la interoperabilidad, el Ayuntamiento podrá requerir los datos o documentos que considere necesarios para su tramitación.

6. PLAZOS

Del 1 al 18 de octubre de 2026.

7. CRITERIOS DE EVALUACIÓN Y CONCESIÓN

Las personas o entidades peticionarias deberán superar una puntuación hasta un máximo de 100 puntos, de acuerdo con los siguientes criterios:

- a) *Presupuesto total de la actividad o programa presentado: hasta **55** puntos
(Cada 1.500 €, 5 puntos)*
- b) *Número de alumnos/as que el Centro tiene en el ciclo para el que solicita: hasta **15** puntos
(Cada 10 alumnos, 1 punto)*
- c) *Número de alumnos/as de Muskiz en el ciclo para el que solicita: hasta **15** puntos
(Cada 10 alumnos, 1 punto)*
- d) *La consideración como programa de especial interés, o por promocionar actividades, colectivos o proyectos que el Departamento de Educación del Ayuntamiento de Muskiz desee apoyar especialmente: hasta **15** puntos*

Otras condiciones:

- a) *El importe de una subvención no podrá sobrepasar el 70 % del presupuesto presentado por la solicitante.*

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da Kultura Sailak banaketarako duen kopuruaren % 30a baino handiagoa izan.

Kasu bietan salbuespenak egon daitezke, behar bezala justifikatuta badaude eta Kultura Sailak onartzen baditu.

8. EBAZPENAK JAKINARAZTEA

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die, eta ondoren dagokien diru-kopurua bankuan sartuko die.

9. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ITZULKETAK

Diruz lagundutako egitaraua egiten den hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehenago justifikatu behar dira.

Justifikazioa nahikoa ez bada edo zuzena ez bada, Udalari dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharko zaio.

Dirulaguntza bat justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

1. Garatutako programa edo jarduerari buruzko txosten zehatza.
2. Izandako diru-sarrera eta gastuen balantze orokorra.
3. Aipatutako gastuen fakturak. Faktura bakoitzarekin batera, ordainagiria aurkeztu beharko da (faktura ordaindu izanaren egiaztagiria).
4. Faktura eta egiaztagirien zerrenda laburtua, eskabidean aurkeztutako gidoiaren arabera sailkatuta. Horretarako eredu emango da.
5. Kartel, esku-orri eta editatu den bestelako publizitate guztia. Informazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko da, eta Udalaren logoa ere agertu behar da.

10. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

38/2003 Legearen II. tituluan eta bere garapen-araudian ezarritako kasuetako bat gertatzen denean, udal-diruzaintzari itzuli beharko zaio jasotako laguntza, bai eta sortutako berandutze-interesak ere, alegia, dirulaguntza ordaindu denetik itzulketa egitea

b) *El importe de una subvención no podrá sobrepasar el 30 % de la cantidad total que el Departamento de Cultura ha dispuesto en esta convocatoria.*

En ambos casos pueden darse excepciones debidamente justificadas y apreciadas por el Departamento de Cultura.

8. NOTIFICACIÓN DE RESOLUCIONES

Tras la resolución de estas solicitudes, todos los peticionarios serán notificados por escrito por el Departamento correspondiente, procediéndose posteriormente al ingreso de las cantidades otorgadas.

9. JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES Y DEVOLUCIONES

Deberán justificarse antes del 31 de enero del año posterior al del programa subvencionado.

En el caso de que la justificación sea insuficiente o incorrecta, procederá reintegrar una parte o el total de la subvención al Ayuntamiento.

La documentación a presentar para justificar una subvención será:

1. *Memoria descriptiva y valorativa de la actividad o programa subvencionado.*
2. *Balance general de ingresos y gastos habidos.*
3. *Facturas de los citados gastos. Todas las facturas deberán ir acompañadas del correspondiente justificante de pago (comprobante de abono).*
4. *Listado numerado correlativamente de las facturas y justificantes presentados. Se proporcionará plantilla para ello.*
5. *Carteles, folletos y cuanta publicidad se haya editado, en los que deberá constar el patrocinio municipal (logo). Dichos medios de divulgación, difusión o publicación deberán constar en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

10. INFRACCIONES, SANCIONES Y REINTEGROS

Procederá el reintegro a las arcas municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos y de acuerdo con el procedimiento

erabakitzen den egunera arte sortutakoak; eta hori guztia, titulu berean finkatutako prozedurari jarraiki. Hona hemen arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezartzen duten xedapenak: batetik, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Titulua, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, bai eta bakoitzaren garapen-arauak eta legeria aplikagarria ere.

establecido en el Título II de la Ley 38/2003, así como en su respectiva normativa de desarrollo.

El régimen de infracciones y sanciones será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y demás legislación que resulte aplicable.